Donostiako Aurrezki-Kutxa Munizipala

# BERE KULTUR EKINTZAREN EGOITZA BERRIA

31 de Agosto Kalea - Donostia



Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián

# NUEVA SEDE DE SU OBRA CULTURAL

Calle 31 de Agosto - San Sebastián

AURREZKI-KUTXA MUNIZIPALA

CAJA DE AHORROS MUNICIPAL

En la que viene definiéndose como «Ruta de Museos» de San Sebastián, en el corazón mismo de la vieja historia de la ciudad, la nueva sede de la Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal constituye un eslabón de significativa importancia entre el pasado y el presente de nuestro pueblo.

La calle 31 de Agosto en la que está ubicada dicha sede, en la Parte Vieja donostiarra —hoy objeto de un ambicioso y necesario Plan de Rehabilitación—, es eje urbano y testimonial que articula esa ruta artístico-cultural e histórica que va desde el Museo Oceanográfico y la Casa del Consulado hasta el Museo San Telmo y el proyectado Centro de Arte Moderno (en las Escuelas del Ensanche Oriental), pasando por la Muralla del Puerto, Santa Teresa (al parecer, futuro Museo Arqueológico), la plaza de la Trinidad, Santa María y San Vicente, hasta la plaza de Ignacio Zuloaga.

Y todo ello al pie del monte Urgull, en cuyo Castillo de Santa Cruz de la Mota se pretende la rehabilitación de su Museo Histórico-Militar, ya instalado allí en su día.

En este bello y ambicioso proyecto, que se prevé será llevado a cabo a través de concierto entre el Gobierno Vasco, Diputación Foral y Ayuntamiento, la Caja de Ahorros Municipal ha realizado ya una fase importante: la rehabilitación arquitectónica e inauguración y puesta en marcha, el 31 de agosto de 1987, de las nuevas instalaciones de su Obra Cultural. Que integra las actividades y centros que se describen a continuación.

## GRUPO DR. CAMINO DE HISTORIA DONOSTIARRA

**Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián** aldizkariarekin (urterokoa 1967tik hona), 70en bat argitalpenek osatzen dute. J. Inazio Telletxea Idigorasen zuzendaritzapean, Dk. Camino Taldearen argitalpen ekarria.

Eta horiek jasotzen duten dokumentuzko ikerketa aberatsa, bere aldetik, funtsezko datu-oinarri bat gertatzen da gure historia ezagutzeko, horrela zorrotzak eta zientifikoak izatearekin batera denok eskuratzeko moduko liburu batzuen bidez dibulgatuta. Aurki daitezke gainera horien artean gure Historiografiako balore gazteen lan akademiko egin berriak ere. Argazkian, azken argitalpenak.



Inauguratutako instalazio berrien artean, Dk. Camino Taldearen despatxu eta bilera-gela hau gure kulturako bost izen handiren argazkien (Enrike Albizu eta Rafael Ruiz Balerdirenen) itzalpean: Joxe Migel Barandiaran, Julio Caro Baroja, Koldo Mitxelena, Jorge Oteiza eta J. Inazio Telletxea Idigoras. Hurrengo orrialdeetako irudietan ikusiko dituguen pertsonaiak denak. Eskultura berriz, Nestor Basterretxearen «Gernikako Arbolari omenaldia» da.





## KONDAIRA DONOSTIARRAREN DR. CAMINO TALDEA

Kondaira Donostiarraren Dk. Camino Taldea 1966an eratu zen Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen eta Aurrezki-Kutxa Munizipalaren arteko kultur ekintza bateratu batean, eta azken erakunde honek eutsi eta babesten du Kultur Ekintza Propioa bezala. 1963an Donostian 1813ko sutearen urtemugaren eta 1863ko murraila historikoen eraisketaren kariaz ospatu ziren mendeurreneko oroitzapenen ondorio kultural bat izan zen. Eta 1988ko urte honetan, berriz, bi gertakari horien 175. eta 125. urtemugak ospatzen dira hain zuzen ere.

Talde honen fundazioko testuak pasarte benetan adierazgarri bat dakar zera dioenean:

«Donostiako herriak atzeman zuen, bai, nostalgia edo sentimendu faltsu batekin berriz ere gogoratu baino areago, gure Hiriko edozein garai edo zirkunstantziatan jaio, bizi eta hil zirenen bertute iraunkorrei berriro ere bizia eman nahi zien oroitzapenezko ospakizunen benetako zentzua».

Eta pragmatismo eta kultur eraginkortasuneko bide honi berari jarraituz, zera bezala definitzen da Taldea:

«Donostiako hiriaren eta honen seme-alaben iraganaren estudioa eta ikerketa sustatu eta koordinatzera eta horretarako datu, aztarren eta dokumentu historikoak berreskuratzera dedikatutako kultur erakundea».

**SALA SERAPIO MUGICA:** Así nominada desde el 31 de agosto de 1982, en recuerdo al que fue Cronista e Inspector Provincial de los Archivos Municipales de Guipúzcoa. En ella se conserva el fondo documental de historia vasca que, procedente de la biblioteca de Serapio Múgica, fue donado por su hijo José Múgica y Múgica, alcalde-presidente que fue de la CAM. El presidente del Grupo Dr. Camino, profesor J. Ignacio Tellechea Idígoras, ha ordenado, clasificado y catalogado estos fondos. También se conserva el legado documental de Cecilia de Arrizabalaga.

La Sala es marco idóneo para las sesiones de presentación de nuestras publicaciones, así como para otros actos culturales. Por ella han pasado, y siguen acudiendo, las personalidades más relevantes de la cultura vasca.









**SALA DE ESTUDIO:** Inaugurada la Biblioteca Dr. Camino en 1973, su fondo de consulta contiene alrededor de 4.000 títulos sobre historia donostiarra, guipuzcoana y vasca. Algunas importantes ediciones de los ss. XVI y XVII e interesante fondo de libros ingleses del XIX sobre Donostia y el País Vasco. Colección de estampas y grabados de época.

## SOCIEDAD GUIPUZCOANA DE EDICIONES Y PUBLICACIONES





La acción editorial, como vehículo de cultura, viene gozando desde hace muchos años de una muy especial atención por parte de la Caja de Ahorros Municipal, como es públicamente sabido. Y su desarrollo va a potenciarse aún más.

Su instrumento técnico y operativo, la Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, fue constituida en 1967, en una acción cultural, también conjunta, entre la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País y la Caja de Ahorros Municipal, que desde entonces la sostiene y patrocina como Obra Cultural Propia.

Las nuevas instalaciones de la Editorial, ubicada durante tanto años en la calle Urbieta, muestran en toda su importancia el considerable fondo publicado.



Kutxaren jabetzako miniatura militar preziatuzko bildumaren gerakinak. Urgull-eko Damen Bateriaren museotxoan egon zen ikusteko jarrita, 1972 eta 1974eko lapurretak jasan zituen arte. Hauek kontu guztiarekin zaintzen dira kultur ingurune honetan, argitalpen-fondoekin batera.

## ARGITALPEN ETA PUBLIKAPENEN GIPUZKOAR ERAKUNDEA



Son numerosos los títulos editados a través de las distintas colecciones, tanto en euskera como en castellano, y entre los que se encuentran plumas muy caracterizadas e importantes de la cultura vasca, a través de una temática de reconocido interés histórico, literario, etnológico, artístico, científico. Varias de estas publicaciones han merecido el honor de diversos premios. A los más de 300 títulos publicados bajo la égida de la Caja de Ahorros Municipal, debe añadirse asimismo, como novedad editorial de estos últimos años, la incorporación de vídeos.

En esta fotografía, las últimas publicaciones que se exhiben en la nueva sede de la Editorial, correspondiente a las diferentes colecciones.

Asko dira bilduma desberdinetan, euskaraz nahiz gaztelaniaz, argitaratutako tituluak, horien artean beti ere euskal kulturako lumarik karakterizatu eta garrantzizkoenak gailenduz, interes historiko, literario, etnologiko, artistiko edo zientifiko handiko gaien baten inguruan. Horietako zenbait, gainera, sari desberdinen merezigarri ere egin dira. Eta gero, Aurrezki-Kutxa Munizipalaren babespean argitaratutako 300 baino gehiago tituluri erantsi behar zaie orobat, azken urteotako argitalpen-nobedade gisara, bideoak ere sartu izana.

Argazki honetan, Argitaldariaren egoitza berrian erakusten diren eta bilduma desberdinei dagozkien azken argitalpenak.

## OTROS ASPECTOS DE LAS NUEVAS INSTALACIONES




La obra realizada en la c/ 31 de Agosto, según proyecto y dirección técnica de su arquitecto Carlos Arruti, secundado por el arquitecto técnico Vicente Azpiazu, comprende el siguiente programa:

- Restauración de fachada de la finca n.º 30 (antigua casa del conde de Peñaflorida), que ha hecho mejorar sensiblemente esa zona tan significativa de la ciudad, como puede verse en las fotografías iniciales y finales de este folleto.
- Remodelación de parte del bajo y del 1.er piso de la casa n.º 30, produciendo al mismo tiempo la unión entre todos los locales con el fin de su utilización como unidad.
- Construcción de planta baja en la finca n.º 32 y construcción sobre ésta, en línea de fachada a la calle, de cuatro locales, comunicados por una escalera en su parte posterior (en la fotografía, aspecto exterior del nuevo edificio).
- Remodelación del bajo de la finca n.º 34.

Galeria zabal eta eroso batek lotzen ditu behe-oin guztiko instalazio eta zerbitzu berriak, guztira 470 $m^2$ okupatuz. Abangoardiako eskulturek, garai batean donostiar Bulebarreko La Marina kafetegi zaharreko (1867ko) buruhormak okupatu zituzten gipuzkoar prestuen erretretatu zaharrekin (Eujenio Azkueren oleoekin) kontrapuntu eginez, apaintzen dute proportzio harmoniatsu eta atseginezko barne-komunikazio argi eta funtzional hau.





Una amplia y cómoda galería interior comunica las nuevas instalaciones y los servicios de toda la planta baja, que queda con un total de 470 $m^2$. Esculturas de vanguardia, en contrapunto con los viejos retratos de guipuzcoanos ilustres (óleos de Eugenio Azcue) que ocuparon los testeros del antiguo café de La Marina en el Boulevard donostiarra (1867), adornan esta luminosa y funcional comunicación interior, de armónicas y agradables proporciones.

## INSTALAZIO BERRIEN BESTE ALDERDI BATZUK



Errestauratzeko orduan Parte Zaharraren Errehabilitazio-Planeko errizpideei jarraitu zaie, izan ere Plan hori, nahiz eta oraindik onetsi gabe egon, ezartzen ari bait da jadanik bere gidarauak. Alderdi horrek garai batean izan zuen ohizko itxura eman nahi izan zaio, fatxadetako karea eta entokadura bezalako elementuak sartuz, Ugartemendiak deskribatu zuen bezala.

Aurrerapenaren eta Donostiaren onerako ekarpen-ekintza honetan, Kutxak, horrela, Udalari eta bere hiritarrei laguntzen daraman ehundaka urtetako bideari jarraitu baino ez du egiten.

Obra honek badu intentzio-aurrerakin bat, eta baita proiektu bat ere jadanik 1979an, Erakundeko zuzendari orokor Nikolas Lasarte Arana zela, AKM fundatu zeneko mendeurrena ospatzearen kariaz.

Bajo la fotografía de la nueva oficina de la Fundación Social y Cultural de la Caja, aspectos de la inauguración de la sede cultural de la CAM, el 31 de Agosto de 1987. Bajo la presidencia de Xabier Otaño Etxaniz y Xabier Alkorta Andonegi, presidente y director general de la Institución, respectivamente, autoridades, personalidades y numeroso público en el acto inaugural.





Kutxaren Fundazio Sozial eta Kulturaleko bulego berriko argazkiaren azpian, AKMren kultur egoitzak abuztuaren 31n eskaintzen zuen itxura. Xabier Otaño Etxaniz eta Xabier Alkorta Andonegi, hurrenez hurren Erakundeko lehendakari eta zuzendari orokor zirenen lehendakaritzapean, agintariak, handikiak eta jendea oro har inaugurazioko ekitaldian.

## ARCHIVO FOTOGRAFICO - FOTOTECA









En tres amplios compartimentos, que ocupan en la planta baja una superficie de más de 100 m², dotados de moderna instalación técnica y funcional, quedan instalados, en sus respectivos recintos o «compactus», los depósitos correspondientes a los fondos bibliográficos de la Biblioteca Dr. Camino, fondos editoriales de la Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones y fondos gráficos del Archivo Fotográfico. En la imagen, aspecto de los álbumes de la Fototeca y postales de la colección.

El alcalde de Donostia, Xabier Albistur conversa, desde el interior del propio «compactus», con Xabier Alkorta, Manuel M.ª Hernández y Pedro M.ª Ibaibarriaga.

Behe-oinean 100 m² baino gehiagoko azalera okupatzen duten hiru galaune zabaletan banatuta, eta instalazio tekniko eta funtzional modernoz zuzkiturik, Dk. Camino Bibliotekaren fondo bibliografikoei, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones-en argitalpen-fondoei eta Argazki-Artxiboko argazki-fondoei dagozkien gordailuak, bakoitza bere lekuan ipinita geratzen dira. Irudian, Fototekako albumen ikuspegi bat.



















## ARGAZKITEGIA

1.700 albumek, 420.000 postal-argazkirekin gai desberdinen arabera sailkatuta, eta 500.000 argazki-negatibok, kristalezko plaka, klitxe edo erroilutan jasota, segun zein garaitan inpresionatuak izan ziren kontu, eta hauek ere gaien arabera sailkatuta eta Frantzisko Urkiolak, Jesús M.ª Irastorzaren laguntzarekin, kronologikoki ordenatuta, osatzen dute Kutxaren Fototeka, Foto Marín (1920-1962) eta Fotocar (1915-1960) argazki-etxeen fondoak erostetik osatuta. Beste zenbait argazki-artxibo ere (Foto Arturo, Fondo Alday) inkorporatu dira oraindik berriki Fototekara, bere dokumentazio grafikoa, horrela, balio historiko eta testimonial oso altuko bilduma bihurtuz.

Kutxak oraindik orain argitaratutako «**Argazkiak**» bildumako liburuek —hementxe aurkezten dira beren azalak—, argazki horien adibide liluragarri aski bat gertatzen dira, gaien arabera eta kronologikoki aurkeztuz eta iruzkinekin hornituta.

Bai Fototeka honek eta bai Dk. Camino Bibliotekaren eta Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones elkartearen zerbitzuek, ordutegi zabal eta eroso batez gozatzen dute jendeari beren ateak zabalik edukitzeko.







1.700 álbumes en 420.000 fotografías-postal clasificadas en diversos temas y 500.000 negativos de fotografías en placas de cristal, clichés o rollos, según las épocas de su impresión, clasificados también por temas y ordenados cronológicamente por Francisco Urquiola, secundado por Jesús M.ª Irastorza, integran la Fototeca de la Caja constituida por la adquisición de los fondos de Foto Marín (1920-1962) y Fotocar (1915-1960). Otros archivos fotográficos (Foto Arturo, Fondo Alday) han sido incorporados recientemente a la Fototeca, cuya documentación gráfica constituye así una colección de muy alto valor histórico y testimonial.

Los volúmenes de la colección «**Argazkiak**» —cuyas cubiertas se presentan aquí—, editados recientemente por la Caja, presentan una atractiva muestra de tales fotografías, tratadas literaria, temática y cronológicamente.

Tanto esta Fototeca como los servicios de la Biblioteca Dr. Camino y de la Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones tienen un amplio y cómodo horario de disposición abierta al público.

## OBRA CULTURAL - RELACIONES CULTURALES

Trasladados desde el Edificio Central de la calle Guetaria —donde estuvieron ubicados durante tantos años—, ambos Departamentos han quedado instalados en el primer piso del nuevo complejo cultural, en aras a una lógica cercanía funcional a los Servicios Culturales sitos en la calle 31 de Agosto. Desde ellos se proyecta, en estrecha relación con el Departamento de OO. Sociales y RR. Institucionales de la Caja, una amplia acción cultural.

No es posible —ni es objeto de estas páginas— ofrecer aquí ni siquiera una aproximación a la compleja actividad cultural de la CAM. Sus Memorias anuales dan cumplida cuenta de ello. Las imágenes que siguen son sólo una muestra simbólica de tal actividad.





Actividad en la Casa-Torre de Emparan (Azpeitia), restaurada y puesta en servicio por la Caja en 1977: música (recital de Gonzalo Trevijano, 1982), acto cultural (homenaje a Manuel de Irujo, 1979), y pintura (vista de su gran sala de exposiciones).





Ihardunaldi bat Azpeitiko Enparan dorre-etxean, Kutxak 1977an errestauratu eta zerbitzuan jarrian: musika (Gonzalo Trevijanoren errezitala, 1982an), kultur ekitaldia (Manuel Irujori omenaldia, 1979an), eta pintura (bere erakusketa-sala handiaren bista).

## KULTUR EKINTZA - KULTUR HARREMANAK

El mundo del arte tiene especial incidencia en la actividad cultural de la CAM: sus exposiciones antológicas, como éstas de Ansa y Oteiza (1986) o Elguezua (1987), autor de la famosa escultura de Atano III —por citar sólo una breve muestra de aquéllas—, y las más de 30 publicaciones de la colección de catálogos «Antologías», son reflejo de su importancia.

En otra de estas fotografías, Eduardo Chillida en la presentación de la «Biblioteca Básica de Euskal Herria» (coedición de la Caja en 1982), junto a José Miguel de Barandiarán.











Artearen munduak eragin berezi bat du AKMren kultur ihardueran: hor dauzkagu bere erakusketa antologikoak, Ansa eta Oteizarenak (1986) edo Elgezuarena (1987), Atano III.aren eskultura famatua egin zuen berarena —batzuk besterik ez aipatzearren labur-labur—, eta «Antologías» katalogoko 30 argitalpen baino gehiago, diogunaren lekuko.

Argazki hauetako beste batean, Eduardo Txillida «Biblioteca Básica de Euskal Herria» argitalpenaren (Kutxarekin batera 1982an argitaratuaren) aurkezpenean, Joxe Migel Barandiaranen ondoan.

## IMAGENES DE LA ACTIVIDAD ARTISTICA, CULTURAL Y EDITORIAL





Juan Luis Mendizabal, «Mendi», gure Kultur Ekintzaren ordezkari izan dena 1988ko ekainean jubilatu arte, bere iharduera artistiko-kulturaletik hain hurbil aurkitzen den ingurune grafiko honetan: Erakundearen Edifizio Zentraleko Erakusketa-Aretoan eta hiru ekitaldi artistikotan: Jose Zugasti eta Eloi Erentxunen omenaldietan (San Telmoko Udal-Museoan, 1987an) eta Gaspar Montes Iturriozenean (Irungo Udaletxean, 1988an).







## ARGITALPEN, ARTE ETA KULTUR IHARDUERAREN IRUDIAK

Kutxaren Kontseilu-Aretoa ere kultur ekintza garrantzitsuen lekuko dugu. Honako bi hauek erakusten duten bezala: Helder Camara monsignorea bere «**Bi munduen sinfonia**»ren aurkezpenean (Orfeoi Donostiarraren zuzendari Antton Aiestaran zenaren ondoan, 1985ean)...







... eta Javier Elzo, Eliz Barrutiaren Gizarte-Laneko Unibertsitate Eskolaren (AKMrekin Elkarlaneko Obraren) zuzendaria, «**Drogas y Escuela**»ren aurkezpenean, 1987an. «**Hitzez**» joku-bilduma ere urte berekoa da.



Capítulo aparte y amplísimo merecería la Sala de Cultura de la calle Arrasate, con su incesante actividad. En la fotografía, Carmen Castro, viuda de Xavier Zubiri, en el homenaje al universal filósofo donostiarra, junto al profesor Diego Gracia (1984).

Argitalpen-iharduerak postu gailen bat betetzen du Aurrezki-Kutxa Munizipalaren kultur ekintzan. Irudiek —gehienak azken urte hauetako gertakariei badagozkie ere— gure liburuen aurkezpen-ekitaldien garrantzia isladatzen dute, agintari publiko eta kulturako nagusienen presentziarekin, eta omenaldi eta gertakari garrantzitsuen ospakizunekin batera sarri askotan. Argazkiak, horrela, herri eta eszenategi desberdinetan atereak daude, Kutxak bere kultur programak iharduketa-marko zabal batera hedatzeko duen gogoari jaraituz.


(1)


(2)


(3)


(4)


(5)


(6)


(7)


(8)

(1) RENTERIA (1977), Centro Cultural Xenpelar: «**Errenteria kondairan eta ipuin-zaharretan**» (E. y R. Bozas-Urrutia).

(2) DONOSTIA (1984), Biblioteca Dr. Camino: «**Eliza**» (Luis Villasante).

(3) y (4) ZUMAIA (1979), Salón Aita Mari: «**Julio Beobide, un escultor del pueblo**» (Ana M.ª Gutiérrez).

(5) ARRASATE (1979), Ayuntamiento: «**Sebero Altube**» (Josemari Vélez de Mendizabal).

(6) DONOSTIA (1983), Biblioteca Dr. Camino: «**Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián**». Homenaje a J. Ignacio Tellechea Idígoras.

(7) y (8) ZUMARRAGA (1982), Ayuntamiento: «**Bere eriotzaren mendeurrenean. Iparragirre**» (Angel Cruz de Jaka y varios).


(9)


(10)


(11)


(12)



(13)


(14)


(15)

(9) DONOSTIA (1983), Diputación Foral: «**Sobre los Fueros de Guipúzcoa**» (Manuel de Larramendi - J. Ignacio Tellechea Idígoras).

(10) ZARAUTZ (1987), Ayuntamiento: «**Zarauzko Argazkiak, 1866-1936**» (Zarauzko Argazkizale Elkartea).

(11) y (12) IRUN (1984), Ayuntamiento: «**Irún en el siglo XX (1960-75)**», 3.º tomo (Emilio Navas).

(13) MADRID (1986), Euskal Etxea: «**Extractos de las Actas de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País** (J. Ignacio Tellechea Idígoras y Juan Antonio Garmendia, M.ª Camino Urdiain y Julián Martínez).

(14) VITORIA-GASTEIZ (1987), palacio de Escoriaza-Esquivel: «**Extractos de las Actas de la RSBAP** (id. id.).

(15) TOLOSA (1988), Ayuntamiento: «**Léxico Etnográfico Vasco-Euskal Lexiko Etnografikoa**» (Juan Garmendia Larrañaga).



Entre la plazuela de Alvaro del Valle de Lersundi —con su portada lateral del antiguo monasterio de San Telmo, y la fuente dieciochesca de Kañoietan, adosada al caserón de Peñaflorida— y las torres barrocas de Santa María, ahí al fondo, corre la vieja calle de la Trinidad que, con su actual nombre del 31 de Agosto, rememora el histórico incendio de 1813, que respetó de algún modo ese rincón de la ciudad.

El suelo húmedo bordea la fachada de la nueva sede de la Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal, ante la cual esas clásicas palomas, inevitables en el escenario donostiarra, merodean por el asfalto mojado, sazonado de añejos sabores marinos.




Alvaro del Valle de Lersundi plazatxoaren —bere antzinako San Telmo monastegiaren albo-portadarekin eta Peñafloridaren etxetzarrari erantsita dagoen «Kañoietan» iturri hamazortzitarrarekin— eta hor ondoan ikusten diren Santa Mariako dorre barrokoen artean, aintzinako Trinitate kaleak korritzen du bere gaur egungo izenarekin —Abuztuaren 31 alegia— 1813ko sute historikoa gogoratuz, hain zuzen ere hiriaren txoko hauxe izan bait zen suak nolabait errespetatu zuena.

Zoru heze bat Aurrezki-Kutxa Munizipalaren Kultur Ekintzarako egoitza berriaren ingurumari, eta honen atarian betiko uso horiek, Donostiako edozein eszenategitan inola ere falta ezin direnak, itsas aire zaharrek ferekatutako asfalto bustian pasealari.



Antes de la reforma
Konponketa aurretik